

# 2020ko Aurrekontuak

ehbildu



# Aurkibidea

2020ko Aurrekontu Proiektuaren irakurketa ..... 4

EH Bilduren proposamena ..... 6

- 1- KALITATEZKO ENPLEGUA: PREKARIZAZIO OROKORRAREN  
AURKA, 1.200 EUROKO GUTXIENENKO SOLDATA ..... 7
- 2- BERRIKUNTZA ETA INDUSTRIA: LIDERGOA GURE INDUSTRIA  
ERROTU ETA ETORKIZUNA IRABAZTEKO ..... 10
- 3- PENTSIO PUBLIKOAK: ESKUBIDEA INDARTU ETA ZABALDU,  
EREDU PROPIO HELBURU ..... 12
- 4- LARRIALDI KLIMATIKOA: TOKIAN-TOKIKO PROIEKTUAK  
SUSTATU, ERALDAKETARAKO GILTZA..... 14
- 5- BERDINTASUNA: ZAINZA LANA AITORTU, DUINDU ETA  
ARAUTU, BETEBEHAR PUBLIKOA ..... 15
- 6- SUSTAPEN ETA BABESERAKO NEURRI BEREZI BATZUK ..... 17



## 2020ko Aurrekontu Proiektuaren irakurketa

Jaurlaritzak Legebiltzarrari igorri dion 2020ko Aurrekontuen Proiektuak aurreko aurrekontuen bide berberari jarraitzen dio eta oinarri bera du, aurten Lakua zenbakiak beste modu batez janzten saiatu den arren, benetan direna baino gehiago direla, erakargarriagoak, irudikatu nahian. Finean, aurrekontu-sailen ordena aldatu du (forma kosmetikoa), baina, zenbakiei erreparatuz gero, bistakoa da edukian (mamian) aldaketa hutsaren hurrengoa izan dela.

EAJ-PSE Gobernua alferrik saiatu da 2020ko aurrekontuak arlo batzuetan berritzaileak direla sinestarazten. Hala, berrikuntza garrantzitsu gisa aurkeztu du genero berdintasunaren alde eta larrialdi klimatikoaren kontra ustez egiten duen apustua, baina diskurtso teoriko horri sostengu praktikoa falta zaio zenbakietan. Jaurlaritzak aurkeztu dituen aurrekontuak ez dira iazkoak baino berdeagoak, ez eta feministagoak ere.

2020ko Aurrekontuek kosmetikatik harago doazen aldaketak behar dituzte gabezia estrategikoak zuzentzeko

Aurrekontuak benetan berdeagoak eta feministagoak izan daitezen, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren beharrei erantzun benetan egokia eman diezaieten, ezinbestekoa da kosmetikatik harago joatea eta haien norabidean aldaketa sakonak egitea, funtsezkoak diren gabezia eta akats estrategikoak zuzendu ahal izateko.

Horixe da EH Bilduren helburua eta horren arabera jokatuko du aurrekontuen eztabaidan zehar, proposamen eraikitzaileak eginez, mahai gainean neurri zuzentzaile egingarriak ipiniz.

Egoerak hala eskatzen du. Euskal ekonomiaren garapena moteldu da, eta 2020ko aurrekontuen proiektua ere horren isla da: zorpetzea ez da jarduera ekonomikoa eta enplegua suspertzeko erabiltzen, ez eta aldaketa klimatikoaren kontrako politikak sustatzeko ere, zor berria –880 milioi euro baino gehiago– zor zaharra amortizatzeko erabiltzen baita.

Gastu araua euskal ekonomiaren garapena itotzen ari da, eta Jaurlearitzak berdin jarraituz gero, Madrilek inposatutako arauak hitzik esan gabe betetzen, egoera honek luze joko du

Eta bestetik, ohiko gastuaren igoera (%2,9) 2019koa (%3,6) baino baxuagoa da, aurrekontua batere expansiboa ez den beste frogatik bat.

Moteltze horren oinarrian aurrekontu-egonkortasun markoa agertzen da bere gordinetan. European marko hori ezbaian dago ekonomia suspertzeko politikak egiteko aukera mugatzen duelako, nahiz eta, euskal kasuan bezala, politika horiek ikuspegi fiskal eta finantzario batetik egingarriak izango liratekeen.

Gastu araua euskal ekonomiaren garapena itotzen ari da, eta Jaurlaritzak berdin jarraituz gero, Madrilek inposatutako arauak hitzik esan gabe betetzen, egoera honek luze joko du, alternatibak egon badaude ere.

EH Bilduk argi du finantzen eta aurrekontuen kudeaketan zorrotzak izan gaitezkeela ekonomiaren garapena bultzatzeari eta beharrian sozialei erantzuteari uko egin gabe. Horretarako, baina, funtsezkoa da tresna guztiak gure esku edukitzea eta herri honek behar dituen politikak hemen erabakitzea. Jaurlaritzak jakin badaki EH Bilduren eskua luzaturik dagoela bide hori egiten hasteko.

## EH Bilduren proposamena

Agerikoa da aurrekontu hauek ez direla guk egingo genituzkeenak. Argi du EH Bilduk ez direla gure herriak aurrera begira dituen erronkei erantzuteko aurrekontuak. Aurrekontu hauetan ez da antzematen euren egitura era nabarmenean aldatu duen apustu edo lehentasun politikorik.

Ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik eraikitako proposamen serio, egingarri eta errealistak egiten ditugu

Aurrekontuak txarrak dira, egitura berdintsua mantentzen dute eta, aurreko urteetakoekin alderatuz, norabide berekoak direla baieztatu dezakegu.

Eta hori horrela izanik, eta jakinik horietan egin daitezkeen ekarpenak mugatuak direla, EH Bilduk proposamen hau egiten du, helburu batekin: aurrekontuetan zuzenketa kuantitatibo zein kualitatibo zenbait egitea, jendearen bizi-baldintzetan eta herri honen etorkizunerako gako diren arlo estrategikoetan eragin eta norabidea aldatzeko.

Jarraian agertzen ditugun proposamenak ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik eraikitako proposamen serio, egingarri eta errealistak dira; ez dira aurrekontuen eztabaida datozen asteetan emango delako azken uneko asmakizunak.



Aitzitik, badira legegintzaldi osoan eta, zehazki, urte honetan zehar Legebiltzarrera ekarri ditugun proposamenen laburpen bat, hautu politiko zehatzetan oinarritzen dena eta zeharo koherentea etengabe lantzen ari garen agenda sozialarekin.

Hitz batean esanda, proposamen hau da gure lan politikoaren beharrezko ondorio logikoa. Gainera, kasu askotan, akordio zabalak daude ekimen horien atzean.

## 1- KALITATEZKO ENPLEGUA: PREKARIZAZIO OROKORRAREN AURKA, 1.200 EUROKO GUTXIENENKO SOLDATA

Europako testuinguruan, EAEko enpleguaren datuak, kuantitatiboak zein kualitatiboak, eskasak dira oso. Jendartearen kezka nagusia den arlo estrategiko honetan egungo distortsioa zuzentzea eta aurrera pausuak ematea premiazkoa da, inertziak gaindituz, eta politika publiko esanguratsuen bidez lidergo eta ekimena garatuz.

Ekimen horren helburu nagusia kalitatezko enplegua sustatzea izan behar da ezinbestean, bazterkeria eta bereizkeriarik gabe lan-baldintza bidezko eta egokietan oinarritzen dena, eta hedatuta dagoen egiturazko prekaritateari erantzun irmoa eskaintzen duena. Horretarako, gure errealitate sozio-ekonomikoari eta ekoizpen ereduari estuki lotutako gutxieneko soldata indarrean jarri behar da.

### NEURRIAK:

- **1.200 euro EAEko gutxieneko soldata *de facto* ezartzeko Jaurlaritzak Lanbide Arteko Akordioa sinatzeko babes eta konpromiso irmo, publiko eta jarraitua:** gaur egun lan harremanen esparrua gure eskuduntza zuzena ez denez, beharrezkoa da prekariazioaren aurkako neurri horrekin Jaurlaritzaren borondatea argiki adieraztea.

- **Diru-publikoarekin sustatzen diren kontratazio guztietan 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko konpromisoa:** borondate eta konpromisoa Jaurlaritzaren esparrura ere eramatea logiko eta koherentea izanik, prekarizazioa geldiarazteko neurri eraginkor eta ikusgarri hau indarrean jartzea egoki bezain beharrezkoa da.
- **Gazteak kalitatezko enplegua eskuratzeko talka plana:** pairatzen duten egiturazko prekaritateari aurre egiteko, neurri zehatzak betetzen dituzten enpresen eta beste antolakunde ekonomikoen kontratazio berriak gauzatzeko laguntza lerroa indarrean jartzea: kontratu mugagabeak, 3 urte mantentzeko konpromisoa, bertako hitzarmen pean eta, edozein kasutan, 1.200 euroko langa gainditu, 14 ordainsarrietan. Emakume gazteei laguntzak gehituko zaizkie, pairatzen duten soldata arrakalari aurre egiteko.
- **Iraupen luzeko langabetuak egoki artatzeko talka plana:** laneratzeko zailtasuna bereziak dituzten pertsona hauek erreskatatzeko ekimena, banan banako arreta, prestakuntza, orientazioa, bitartekaritza eta laneratzeko aukerak bereziki zainduz. Enplegu Planak indartu kontratazioaren kalitatea bermatuz (1.200 euroko langa gaindituta) eta horren iraupena luzatuz, laneratzeko sarbidea errazteko eta, edozein kasutan, pertsonaren oinarrizko baliabideak ziurtatzeko.

- **Kontratazio publiko eredu berri bat ezartzeko Klausula Sozialen Legea:** kalitatezko lan, hornidura eta zerbitzuak ziurtatzeaz gain, administrazio publiko guztiek kalitatezko enpleguak sustatzeko konpromiso aitzindaria eta eredugarria izan behar dute eta, horretarako, kontratazio publikoen bitartez sustatzen diren lanpostu guztietan, EAEko edo lurraldeko arloko hitzarmenetako baldintzak eta, edozein kasutan, 1.200 euroko gutxieneko soldata ziurtatu behar dira.
- **Ekintzailera kolektiboa sustatzeko plangintza:** gazteak eta emakumeak bereziki ekonomia sozialeko adierazpideetarako sarbide kolektiboa babestea era iraunkorrean -ekonomia alternatibo eta solidarioa bereziki bultzatuz-, laguntzak eta jarraipena ziurtatuz, digitalizazioan arreta berezia jarriz, eta helburu horietara bideratutako prestakuntza, aholkularitza espezializatua, tutoretza, asistentzia tekniko-juridikoa, laguntza ekonomikoak eta bazkidetzarako baliabideak eskainiz.

## 2- BERRIKUNTZA ETA INDUSTRIA: LIDERGOA GURE INDUSTRIA ERROTU ETA ETORKIZUNA IRABAZTEKO

Berebiziko erronka da berrikuntza gure ekoizpen ehunerako. Eta pausuak eman badira ere, horiek ez dira nahikoak izan Europa mailako datuetan hobekuntza islatzeko. Are gehiago, azken urteetan posizioak galdu ditugu. Premiazkoa da, beraz, apustua indartzea.

Gauza bera esan dezakegu gure ekonomiaren motorra den ehun industrialari buruz. Ezinbestekoa da bultzada eta lidergo publikoa areagotzea, enpresen errotzea bermatzeko, handien traktore lana ziurtatzeko edo euren norabide estrategikoa helburu publikoekin lerratzeko. Eta hori guztia arreta berezia eskainiz krisiaren alde gogorrena pairatzen ari diren eskualdeetan.

### NEURRIAK:

- **Finkatuz** funts publikoaren bitartez estrategikoak diren enpresen akzioak **erostea**: Beharrezkoa da industria politikan jarrera proaktiboa izatea hainbat arlotan funtsezkoak diren enpresen lurraldearekiko atxikimendua babesteko, enpleguarekin, inbertsioekin, edo ikerkuntzarekin euren konpromisoa ziurtatzeko eta ditugun erronkei era egoki eta koordinatuan erantzuteko. Ekimen hau ez garatzearen kostua altua da oso, eta jada ezagutzen ditugu horren adibide mingarri batzuk.

- **Ikerketa eta Garapenerako funtsari ekarpen berezia egitea:** bereziki enpresa txiki eta ertainei digitalizazioarako eta trantsiziorako erronkeei egoki heltzeko baliabide, tresna eta aukera berriak eskaintzea, beste erakunde publikoekin eta berrikuntzaren ekosistemarekin elkarlanean.
- **Ikerketa eta Garapenean BPG Barne Produktu Gordinaren %3 inbertitzeko estrategia osatzeko eragile sozio-ekonomikoekin mahaia eratzea:** epe ertainean ezinbesteko helburu izanik, premiazkoa da erabaki politikoak hartzea eta horiek gauzatzeko baliabideak martxan jartzea, horretarako eragileen ekarpenak funtsezkoak izanik.
- **Behar gehien duten eskualdeei bultzada emateko funtsa:** krisiaren alde gogorrenak jaso dituzten inguruetan inbertsioak erakartzeko eta enplegua sortzeko, beste administrazio publikoekin batera eta eragile sozio-ekonomikoekin elkarlanean.

### 3- PENTSIIO PUBLIKOAK; ESKUBIDEA INDARTU ETA ZABALDU, EREDU PROPIO HELBURU

Pertsona orok eskubidea du pentsio duin bat jasotzeko eta, beraz, betebeharrak publikoak da hori ziurtatzea eta hori bideragarri egiteko neurriak hartzea. Euskal Herria erredugarria izan behar da arlo honetan, gure jendea zaindu eta elkar babesteko dugun ardura honetan.

Egun ditugun eskuduntzak sakonki baliatzea beharrezkoa izanik, ezin dugu alde batera utzi bidezkoago eta egonkorragoa izango den eredu propio osatzeko tresnak eskuratzeko konpromisoa, une honetan kudeaketa arloan zehazten direnak.

#### NEURRIAK:

- **DSBE Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta egun jasotzen duten pentsiodunek murrizketarik gabeko osagarria jasotzeko ekarpen berezia:** 1080 euroko gutxieneko pentsioaren helburua irudikatzen duen osagarri hau indarrean dagoen gutxieneko soldataren %100ra ailegatu behar da, 2008ko legeak ezartzen duena betez.
- **Pentsio baxuak osatzeko eskubidea pentsiodunen artean zabaltzeko informazio eta asistentzia kanpaina bideratzea:** hainbat arrazoi tarteko oso altua da osagarria jasotzeko eskubidea izan eta bera eskatzen ez duten pentsiodunen kopurua eta, beraz, hori nabarmen murrizteko eta eskubidea zabaltzeko kanpaina bideratzea egokia da.

- **Gizarte Segurantzaren arloko eskuduntzak berehala eta bere osotasunean eskualdatzeko exijentzia berrestea:** arloko politikak –enplegu politika pasiboa barne- koherenteak, koordinatuak, trinkoak eta sendoak izateko, ezinbesteko baldintza da eskualdaketa hori negoziatu eta gauzatzea, beti ere, sistema propio martxan jartzea helburu izaki.



#### 4- TRANTSIZIO ENERGETIKOA: TOKIAN-TOKIKO PROIEKTUAK SUSTATU, ERALDAKETARAKO GILTZA

Udal mailan jasagarritasun energetikoa ezartzeko neurriak bultzatzeko funtsa aurrekontuan jasotzea: EH Bilduk legeari babestea emateko jarri zuen baldintza.

Aldaketa klimatikoaren aurkako borroka, neurri handi batean, energiaren arloan erabakiko da. Horregatik, garrantzitsua da oso arlo horretan erabaki eta neurri ausartak eta berritzaileak indarrean jartzea. Bide horretan, erakunde eta politika publikoak erreferente eta aitzindariak izan beharrean daude, tokiko erakundeetatik hasita.

#### NEURRIAK:

- Tokiko administrazioan klimaren aldaketaren kontrako egintzan aurrera egiteko inbertsioak bultzatzeko finantza-tresna eratzea: orain arte garaturiko politiketan jauzi kuantitatibo zein kualitatibo bat ekarri behar duen neurri honek herri mailako sormena, auzolana, lankidetzeta eta proiektu ezberdinak sustatu, orokortu eta era koherentean garatzen lagunduko du, indartsu eta iraunkorra den finantza tresna baten bitartez.

## 5- BERDINTASUNA: ZAINZA LANA AITORTU, DUINDU ETA ARAUTU, BETEBEHAR PUBLIKOA

Mobilizazio masiboek berdintasuna agenda sozial eta politikoaren erdigunean kokatu dute eta, horren ondorioz, egiturazko bidegabekeriak azaleratu dituzte. Horiek, baina, ez dute lortu, oraingoz behintzat, desiragarriak diren aldaketak gure politika publikoetan.

Bereziki tamalgarria eta salagarria da zaintza lanen egoera, feminizatuta, prekarioa eta baztertua, sarritan ikusezin bihurtua. Lehenasunezkoa da, beraz, erakunde publikoek dagokien erantzukizuna bereganatzea, lan baldintzak duintzeko eta kalitatezko zerbitzuak bermatzeko.

### NEURRIAK:

- **EAEko adinekoentzako egoitzetako erabiltzaileen zein langileen baldintzak hobetzeko ekarpen berezia egitea:** EAEko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko 126/2019 Dekretua sakonki aldatzea lehenasunezkoa da, besteak beste, eguneroko jardueretarako laguntzarako denbora nabarmenki areagotuz, -batez besteko 120 minutuko arreta zuzena bermatuz- eta, orokorrean, zuzeneko ratioak hobetuz.

- **Zaintza lanetan urteetan aritu diren emakumeak konpentsatzeko funtsa sortzea:** gizarte eredu berri baten oinarriak sendo eraiki nahi baditugu, justiziazkoa da atzera begiratzea eta egiturazko egoera bidegabea pairatu duten emakumezkoek, pentsiodunak izan zein ez izan, egindako zaintza lana aitortu eta, neurri batean, konpentsatzea.
- **Zaintza demokratizatu eta duintzeko neurri sorta:** zaintzaren esparruaren aitortza eta zaintza lanetan ari diren emakumeen lan-baldintzen kalitatea hobetzera bideratutako neurriak. Tartean, etxeko langileen esku jartzea arlorako osasun-gida eta euren egokituriko prestakuntza, eta ekintzailtza kolektiboa sustatzeko programa bat mendekotasuna duten pertsonen zaintza lanetan ari diren emakumeentzat.

## 6- SUSTAPEN ETA BABESERAKO NEURRI BEREZI BATZUK

- **Diru Sarrerak Bermatzeko Errentan urteetan jazotako murrizketak ezabatzeko bide-orria ahalbidetuko duen ekarpen berezia:** legearen hitza eta izpirituaren aurka eginez, murrizketa handiak ezarri dira DSBeren sisteman eta, ondorioz, azken urteetan, prestatzaileek ez dute jaso zegokien diru-kopurua. Beraz, justiziagatik, hazkundera jaso duen pobrezia aurre egiteko eta legearen helburu den gizarte inklusioa sustatze aldera, premiazkoa da, legeak ezarritakoa betez, murrizketa bideari amaiera ematea. Bide-orri horren lehenengo urratsak familia monomarentalak eta indarkeria matxista pairatu duten emakumeak murrizketetatik salbuetsiko ditu.
- **Alokairuzko etxebizitza prezioari mugak jartzeko legedia garatzeko konpromisoa:** etxebizitzaren arazo larria konponbidean jartzeko alokairuaren aldeko politika publikoak indartzea beharrezkoa izanik, gehiegizko prezioei mugak jartzeko EAEko eskuduntza legegilea erabiltzea ezinbestekoa da, Europako hainbat herrialdetan jada egiten ari den moduan.
- **Gazteen emantzipazioa sustatzeko oinarrizko errenta aplikatzeko proiektu pilotua ezartzea:** egiturazkoa den gazteen prekarizazioaren arazoari irtenbidea emateko neurri ezberdinak beharrezkoak izanik, berritzailea eta esanguratsua den proposamen honek emantzipazio prozesua gazteen beraien esku uzteko tresna berriak eskaintzen ditu.

- **Merkataritza txikia babesteko neurriak indartzeko aurrekontua gehitzea:** duen egoera larriari aurre egiteko politika publikoak indartzea beharrezkoa da, sustapen neurriak ezartzeko, edo asoziazionismoa orokortzeko eta arloko digitalizazioari egoki erantzuteko.
- **EHUko aurrekontua gehitzea:** gure unibertsitate publikoa indartzeko eta erreferente bihurtzeko ahaleaginean, pertsonal atala indartzeko eta zaharberritze lanetan beste pausua emateko ekimena.
- **Garapenerako lankidetzarako funtsa indartzea, %0.7 helburu:** eragile beraiek markaturiko bide orria ezarriz, beste pausu bat ematea legezkoa eta justiziazkoa den kopurura heltzeko.
- **ETB1rako aurrekontua gehitzea:** azken urteetan bigarren mailan eta gainbeheran izandako euskarazko katearen egoerari buelta emateko eta horren edukiak sendotzeko beharrezko apustua.

